

Tokiko Agenda 21eko Foroaren tailerraren akta

2015eko urriaren 22an, 18:30etik 20:20ra, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

ZARATA LEGAZPIN

MUNICIPIO RUIDOSO ? No pero...

por zonas: 6, 6, 6, 6, 7, 5

FOKOAK [ORDUKORREAN]

- RUIDO HAY [Ambiente]
- PUNTUALMENTE SI HAY
- ANTES LO ERA MAS [industria, trafico...]
- EN REALIDAD EL RUIDO SE HA MONIDO/TRASLADADO... [rotondo / carretera]
- MEJOS ROTENCIA porque han mejorado coches...

Ej: parques infantiles

- ESTACION
- ROTONDA SATURNINO TELLERA
- AUTOBUSES [5 mañana]
- Trabaja los sabados [ESCUELA]
- MOROS pequeñas

Focos/Puntos Concretos

- CAMPANAS, ¿es ruido? ¿a qué hora? De 12:00 hasta las 12:00 (MES)... y a las 7:00 empezian 24:00
- BARES CONCRETOS: ELIZONDO...
- MTOS CONCRETOS → FIESTAS... → ej: BARZARAS, bazo.
- Recogida BASURAS [Horario modificado] descarga camiones [EROSKI] -ACCIONES Ruidosas...
- IMPACTO... "al que le toca" / IMPACTO [EDAD]
- DIURNO / NOCTURNO → molesto más, gasean FABIOLA MARTIN
- Lo continuo, nos habituamos / nos acostumbamos.

ZONAS

- LAUBIDE ROTONDA [máquinas de las casas se oyen de noche]
- ROTONDA SATURNINO TELLERA
- GRUANTE ROTONDA
- TREN [zonas TREN]
- ROTONDA LAUBIDE
- ZONA JUANASTEGI - MURU → ITXARREN antes tranquila ahora no
- BASADA TXORRONEA [entrada]
- ZONA HUERTAS [PERROS / BOMBAS] (todas las horas semana)
- CAMPO DE TIRO (está insensibilizado pero se escucha en zona ULTRABA cercana)
- INDUSTRIALDEA [RUIDO de fondo]
- Zona bases PLAZAOLA

EXISTEN POSIBILIDAD DE MODULAR...

Gaia: Zarata Legazpin

Udallerri zaratatsua al da Legazpi? Zein da gure pertzepzioa?

Zeintzuk dira udalerriko gune edo puntu beltzak? Zein da horren eragina gure egunez egun?



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Gaurko tailerrean...

Zaratan jarri dugu Legazpiko Agenda 21eko Foroaren begirada.

Azaldu digutenez, Legazpiko Udala udalerriko zarataren Mapa egiten ari da eta, horretarako, LAECOR enpresa espezializatuaren laguntza jasotzen du. Horrela,

- Lehenengo fase batean, zarata sortzen duten 3 erdigune aztertu dira: tren, industria eta bide-sistema.
- Segidan, 2016an garatuko den 2. fasean hiri-zarata helduko zaio.

Testuinguru horretan, **gaurko saioak helburu bikoitza izan du:**

1. **Legazpin dagoen zarataren gainean dugun pertzepzioari buruz hausnartzea eta dauden gune edo puntu beltzak antzematea eta haiek gudan zein eragina duten aztertzea.**
2. **Legazpiko zarataren Maparen ondorio nagusiak eta haien garrantzia ezagutzea.**

Ariketa oso interesgarria izan da eta, horrezaz gain, jarraipena izango du bi bidetik:

- Alde batetik, Legazpiko zarataren Mapa hasierako onarpena jasoko du laster eta, ondoren, jendaurrean agerian egongo da hilabeteko epean. Horrela, edozein herritar edo bizilagunek izango du proposamenak, iradokizunak eta alegazioak aurkezteko aukera. Guztiak aztertu ondoren, behin betiko onartuko da mapa.
- Eta bestetik, Foroak gaurko tailerrean hiri-zarataren gainean egin dituen ekarpenak urte bukaeran hasiko den Legazpiko zarataren maparen hurrengo fasea aberasteko erabiliko dira.

Beraz, **helburua bete dugula** esan dezakegu... Segidan, urratsez urrats eta xehetasunez, tailerra nola joan den ikusiko dugu.

Nortzuk? Parte hartu duten pertsonak

Foroan gai "berria" den arren, interesa sortzen duen eta erakargarria den gaia dela ikusi dugu. Ondorio hori atera dugu tailerrean jende asko parte hartu duela ikusita. Hona hemen egon direnak:



Floren Gutierrez – Arantza Arizmendi – Esther Agirre – Miren Pildain – Manuel Fernandez (Nagusilan) – Montse Vallejo – Patxi Imaz – Esteban Markinez – Raquel Puente (zinegotzia) – M^a Jose Cantero – Lucia Areizaga – Cristina Limia – Joaquin Azurmendi – Juncal Fernandez – Pedro Agirre – Pilar Makibar – Rafael Gomez (Buskabaso) - Koldobike Olabide (Alkatea) – Eric Galvez (zinegotzia) - Inma Hernandez (Tokiko Agenda 21eko teknikaria) – Alotz Bellido eta Lourdes, Laecor enpresakoak (zarataren Mapa egiteaz arduratu den enpresa) - Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, tailerra sustatzeko lanetan.

Eskerrik asko, bakoitza bere errealitatetik eta egunez egun, Legazpin zarata nola hartzen duzuen eta nola bizi duzuen adierazteagatik. Interesgarria izateaz gain, oso baliagarria izan da.

Hasteko, 2 berri labur

Azkeneko hilabetean gertatu diren gauzetatik, honakoa azpimarratu behar dugu:

1. **“Bizikletan Mugi” bideoa**, eskualdean grabatu da mugikortasunaren 2015eko asteen zehar.

Inma Hernandez teknikariak adierazi duenaren arabera, eskualdeko bizilagunen lekukotzak jaso dira eta horien helburua garraio bide gisa bizikleta erabiltzeko dituzten arazoak azaltzea eta ezagutzera ematea izan da.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Bideoa honako loturan dago ikusgai:

<https://www.youtube.com/watch?v=UiTfUpjtqWo&feature=youtu.be>

2. **Hiri-hondakinak kudeatzeko sistemari buruz kontsulta** egiteko prozesua.

Koldobike Olabide alkateak Udala helburu horrekin egiten ari den bidea zehaztu digu:

- Gobernu taldeak urte bukaeran kontsulta egitea du pentsatuta; helburu horrekin lantalde bat osatu da kontsulta egiteko erabiliko den prozedura zehaztu dezan.
- Orain arte 2 bilera egin ditu lantalde horrek. Azkoitian kontsulta egiteko jarraitu zen prozedura hartu da eredu gisa eta hortik abiatuta Legazpiko errealitatera egokitzen saiatu gara.
- Hemendik aurrera prozeduraren proposamena zehazten bukatzea da asmoa; udal idazkariak aztertu egingo du proposamena segurtasun juridikoa bermatuta gera dadin eta, ondoren, Osoko Bilkurara eramango da.
- Jarraian, baimena eskatuko da Madrilera Alkate andreak kontsulta deitu eta egin ahal dezan.

Eta gaia aztertzeari ekin diogu: **zarata Legazpin**

1. Zer da zarata?¹

2002/49/CE Europako Zuzentarauak - ingurune-zarataren ebaluazioa eta kudeaketa -, ondoren azaroaren 17ko Zarataren 37/2003 Espainiako Legean jaso denak honela definitzen du **ingurune-zarata: giza jarduerak sortzen duen eta nahi ez den edo kaltegarria den kanpoko soinua**, garraiobideek, trafikoak, trenak eta abioiek eta industria-jardueren kokalekuek sortutako zarata barne.

Garrantzi bera duten bi osagaiak osatzen dute zarata: osagaietako bat erabat fisikoa da (soinua, oso ongi zehaztutako magnitude fisikoa); bigarren osagaiak izaera subjektiboa du, eragozpen sentipena.

¹ Honako txostenetik lortutako informazioa:
http://www.osman.es/contenido/profesionales/ruido_salud_osman.pdf

Soinuaren maila dezibeliotan (dB) neurtzen da. Dezibelioetan igoera txiki batek soinu-energia igoera handia dakar. Teknikoki:

- 3 dezibelioren igoerak soinu-energia bikoiztea dakar eta 10 dezibelioren igoera batek soinua 10 aldiz handiagoa izatea dakar.
- Belarriak, aldiz, 10 dezibelioren igoera zarata edo soinua bikoiztu egingo balitz bezala hartzen du.

Foroan praktikara eraman dugu hori. Legazpiko Ingurugelako Edurne Huesak prestatu dizkigun sonometroekin "beroketa-ariketak" egin ditugu eta dezibelioak neurtzen ikasteaz gain, tresnekin trebatu gara.

Eta hauxe da egia: Foroak ere zarata sortzen duela!

Taldeak lanean egon direnean 75 dezibeliotara iritsi gara, ez dela gutxi...



2. Legazpira begira jartzen gara, taldearen pertzepziotik abiatuta

Zaraten Maparen xehetasuna eta emaitzak partekatu aurretik, **Foroaren pertzepzioa eta bizipena** jaso nahi izan dugu. Taldeetan banatuta eta laguntzeko plan bat eskuetan, hauexek izan dira hausnarketarako galderak:

- Udalerrri zaratatsua al da Legazpi? Oтик –batere zaratatsua– 10era –oso zaratatsua–, nola definituko zenuke?
- Zeintzuk dira udalerriko gune edo puntu beltzak? Nola eragiten digute egunez egun?




Bateratze-lanak ikuspegi desberdinak partekatzeko eta gehitzeko bidea eman digu. Segidan, ideia nagusiak azalduko ditugu:

Udalerrri zaratatsua al da Legazpi?

Otik –batere zaratatsua– 10era –oso zaratatsua–, lau taldeak batz best 6,5eko nota jarri diote Legazpiri.

Horrek esan nahi du Legazpi ez dela herri zaratatsua?

Ez erabat:



- **Zarata badago**, herri bizia delako; eta zenbait lekutan eta/edo unetan zarata gehiago dago. Baina ez da gehiegizkoa.
- Eta **azkeneko bi urtetan eman den bilakaerari** dagokionez, bi gauza gehitu behar dira:
 - Batetik, industrietan, autoen kalitatean,... eman diren hobekuntzek, zarata gutxitzen lagundu dute; egia da Legazpi lehen zaratatsuagoa zela.
 - Bestetik, zenbait kasutan zarata ez da gutxitu; mugitu egin da eta leku batzuetatik hiriguneko beste batzuetara joan da. Gaur egun, leku zaratatsu garrantzitsua errepidea da eta industrialdean dagoen errotonda ingurua.

- Zeintzuk dira udalerriko gune edo puntu beltzak? Nola eragiten digute egunez egun?

Banan-banan batu egin ditugu talde bakoitzak egin dituen ekarpenak eta askok bat datoz. Era grafikoan, taldearen pertzepzioaren arabera gune eta puntu zaratatsuenak ondorengo planoan gorri kolorearekin markatu dira –eskerrik asko Floren, gune bakoitza planoan kokatzen eskaini diguzun laguntzarengatik!–:



Zehatz-mehatz, ondorengoa da taldearekin osatu dugun zerrenda:

Legazpiko **gune zaratatsuenak**:

- Saturnino Telleria kaleko errotonda.
- Saihesbidea, errotondatik errotondara.
- Laubide auzoko errotonda.
- Juanastegi-Muru bidegurutzea (lehen Itxaropen auzo lasaia zen baina orain ez).
- Txorroneako aldapa.
- Geltokia, trenbide ardatza, eta ingurunea.

Trenaren kasuan izan ezik, gainerakoan trafikoa da zarata gehien sortzen duena.

Aurrekoei honakoak gehitu behar zaizkie:

- Baratzak dauden gunea, motoponpek eta txakurrek zarata handia ateratzen dutelako.
- Tiro-zelaia; intsonorizatuta dagoen arren, Urtatza auzoan eta baserrietan zarata entzuten da.
- Oinezkoen kaleak –Nafarroa paraleloak, Laubide- eta Plazaola kaleko taberna ingurua.
- Eta industrialdea, urruneko etengabeko zarata bat entzuten da.

Eta beste **gune edo puntu zehatzak**:

- Elizako kanpaiak, goizeko 7:00etatik gauerdira arte jotzen dutela.
- Musika Eskola.
- Taberna zehatzen bat.
- Eguneko edo urteko une zehatzak: eskoletako irteerak, jaiak, barrakak.
- Zabor bilketa gaueko ordutegian.
- Isilgailurik gabeko motoak.
- Autobusak goizeko 5:00etan.

Ariketa honetatik **hausnartze berriak eta interesgarriak** azaldu dira:

- Azkenean, zarataren eragina zarata hori etengabe gertu duen pertsonak jasaten du; bestalde norberaren sentsibilitatearen arabera edo momentuaren arabera (eguna izan edo gaua izan), zarata ez da berdin antzematen; zarata entzuten ere ohitu egiten gara....
- Gauza bat dago argi: trafikoaren zarata ez da desagertzen, lekuz aldatzen da. Energia da! Beraz, alderdi hori kontuan hartu behar da mugikortasunaren gaia lantzen denean.

3. Informazioa Maparen zaratan jasotako ondorioekin osatu dugu

Orri zuri batetik abiatuta herritarren pertzepzioa jaso ondoren, egindako zarataren mapak eskaintzen dituen ondorioekin osatu dugu irudia.

Laster dokumentu osoa Legazpiko Udalaren webgunean kontsultatu ahal izango da (<http://www.legazpi.eus/es/ayuntamiento/exposicion-publica>), planoak eta mapak barne. Dena den, segidan LAECOR enpresako Alotz eta Lourdesek laburtu dituzten ondorio nagusiak azpimarratuko ditugu.

Legazpiko zarataren Mapa

Abiapuntuaren argibideak:

- Zarataren udal mapa baten xedea udalerrian dagoen hots-kutsadura kontrolatzeko ekintza-lerroak ezartzea da, horretarako, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan jasotako baldintzak bete beharko dira.
- 213/2012 Dekretuak euskal udalerrientzako hots-kalitatearen helburuak ezartzen ditu, egun osorako batz besteko balioak zehaztuz. Horrek esan nahi du Dekretuak, puntualki, balio horiek gainditu egin daitezkeela onartzen duela.
- Legazpiren kasuan,
 - Lehenengo fasean, osatu den zarataren Mapak ibilgailuen trafikoaren (GI 2630 errepidea eta herri barruko bideak), trenaren eta industria jardueraren eragina aztertu du; kasu bakoitza hartzen du eta eraikinetan eta udalerrian horrek duen hots-eragina neurtzen du; horrezaz gain, zonifikazio akustikoa zehazten du ondorengo ekintza-planak ezarri ahal izateko.
 - Bigarren fasean –urte amaieratik aurrera- hiriguneko zarata aztertu eta neurtuko da eta horrekin osatuko da mapa.

Datu nagusiak eta emaitzak:

- Osatutako txostenean, aztertutako gunen bakoitzak –ibilgailuen trafikoa, trenen trafikoa eta industria jarduera– modu isolatuan, egunez zein gauez, sortzen duen eragin akustikoa kontsultatu daiteke.
- Modu berean, iturri guztiek batera sortzen duten eraginaren balorazio bateratua sartzen da.

- Ondorio nagusiak:

- **Egungo egoerari** erreparatuz, Legazpin 213/2012 Dekretuan zehaztutako hots-kalitatearen helburuak % 95ean betetzen direla ondorioztatzen da.
- Legazpin, bereziki, 3 erdigune zaratatsu daudela ikusi da eta horiek behar dute arreta:



- Etorkizuneko garapenei dagokienez (bizitegiak nahiz industriak), badira eremu batzuk gaur egun hots-kalitatearen helburuak betetzen ez dituztenak. Beraz, edozein hirigintza-garapen hasi aurretik ezinbestekoa izango da neurri zuzentzaileak ezartzea.

Ondorioz:

- Maparen helburua ez da hots-kalitatearen helburuak dagoeneko eraikita daude gunetan betetzea –modu batera edo bestera “hori horrela datorkigulako” eta agian ezinezkoa izan daitekeelako–.
- Baina helburua bada hots-kalitatea hobetzen joatea, etorkizunean egingo diren hirigintza-garapenetan eta aldaketetan kontuan har dadila lehenetsiz.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Azken finean, Foroaren pertzepzioa eta azterketa teknikoa eskutik doazela eta "puntu beltzak" zehaztean bat datozela ikusi dugu. Era berean, taldeak eman duen informazioa herriko zarataren azterketa gidatzeko balio dezake.

Beraz, eta gaurko helburuak beteta...

Agur esaten dugu hurrengo tailerrera arte

Hori azaroaren 12an izango da. Berehala da hori!

Pozik goaz: Legazpin dagoen zaratari buruz zerbait gehiago jakiteaz gain, Foroaren ekarpena garrantzitsua eta erabilgarria izan delako zarataren Mapa osatzeko.

Horrela, joan-etorrian da hartzearen eta ematearen trukea eta horrekin datorren hilabetean biltzeko geratu gara.

Ohi bezala, hemen izango gaituzue, zuekin eraikitzen jarraitzeko gogoarekin. Atsegina da benetan!

Mila, mila esker!